



Eguberriko Zientzia Tailerrak



aranzadi
zientzia elkartea





INFORMAZIO PRAKTIKOA & IZEN-EMATEA

Aranzadi Zientzia Elkarteak etxeko txikientzat eguberrirako zientzia tailerrak antolatu ditu. Ekintza hauek abenduaren 26tik 29ra arte iraungo dute eta Donostiako Zorroagagainako egoitzan egingo dira. Bertan, umek txorientzako habi kutxak eta jantokiak eraikitzen ikasiko dute; duela milaka urteko animalien hezurak ezagutuko dituzte; astromoen laguntzarekin euritako izarduna margotu eta konstelazioak irakurriko dituzte; eta inguruetako anfibio eta narrastia deskubrituko dituzte.

Tailerren iraupena: 9:30-13:30


Adina: 8-12 urte

Izen-ematea: vgarcia@aranzadi.eus / 943 466 142 (A-O, 9:00-14:00)

Salneurria: 15€ (bazkideak) - 20€ (ez-bazkideak) / tailer bakoitzeko.

Beharrezkoa da izena ematea abenduaren 20a baino lehen.
Ordainketa eskuz egingo da tailerren egunean bertan.





ABENDUAK 26

HEGAZTIENTZAKO ETXEA ETA JANTOKIAK ERAIKI!

Habi kutxak zuhaitzetan ipintzen diren etxetxoak dira, hegaztiei haien babesak eta ugalketa errazteko asmoz. Tailer honetan partaideek berrerabilitako materialekin habi kutxak eraikiko dituzte, gero zuhaitzetan kokatu eta jarraipena egiteko. Gainera, txori gehiago erakartzeko jantokiak ere eraikiko ditugu.



ABENDUAK 27

HISTORIAURRERA BIDAIA

Jolas eta ariketen bitartez Historiaurreko pertsonak nola bizi ziren ikasiko dugu. Tailer honetan antzinako animalien hezurrekin ibiliko gara ere: lehoi, hartz, eta bisonteak! Gainera, arkeologo izateko aukera emango dizuegu...




A long-exposure photograph of the night sky showing numerous concentric white and yellow light trails from stars and planets against a dark background.

ABENDUAK 28

NORK ESAN DU DONOSTIAN EZ DIRELA IZARRAK IKUSTEN?

Teleskopioei esker unibertsoa ezagutzen ari gara, baina begi bistan gauza asko ikus ditzakegu ere. Tailer honetan zerua gure mapa izango da, konstelazioak zer diren eta nola identifikatzen diren ikasiko dugu, izarrak, planetak, sateliteak. Gainera, euritako batean planisferio bat eraikiko dugu euripean izarrak ikusteko!

A photograph of a dirt path winding through a lush green forest with tall trees and dappled sunlight.

ABENDUAK 29

GURE LAGUN IRRISTAKOR ETA ARRASTAKARIAK

Donostia anfibio eta narrasti espezie desberdin ikusteko oso toki aproposa da. Hemen, 28 espezie desberdin bizi dira gure artean, besteak beste hegoaldeko zuhaitz igela (*Hyla meridionalis*). Euskadin soilik Mendizorrotz mendigunean bizi den espeziea da hau eta zoritxarrez galzorian dago.

Neguan narrastiak lozorroan egoten dira, aldiz anfibio gutxi egoten dira aktibo, baina tailer honen bidez Donostiako anfibio eta narrastiak ikusi, ukitu eta desberdintzeko aukera izango dugu.

